

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

**Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa, zein garraio eta komunikazioko sistema orokorrean Autobus Elektriko Adimentsuaren (BEA) nasak eta alboetako espaloiak edonorentzat irisgarri izan daitezen behar den zoru-zerrenda gehitzeari buruzkoa baita**

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2020ko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa, zein garraio eta komunikazioko sistema orokorrean Autobus Elektriko Adimentsuaren (BEA) nasak eta alboetako espaloiak edonorentzat irisgarri izan daitezen behar den zoru-zerrenda gehitzeari buruzkoa baita.

#### Erabaki-proposamena

2018ko apirilaren 11n, udal-zerbitzuei enkargua eman zitzaizen Gasteizko HAPOren egiturazko aldaketa puntuala prestatu eta idatz zezaten, garraio eta komunikazioko sistema orokorrean Autobus Elektriko Adimentsuaren (BEA) nasak eta alboetako espaloiak edonorentzat irisgarri izan daitezen behar den zoru-zerrenda gehitzeko.

Aldaketa egiturazkoa da, sistema orokorren zehaztapenari eragiten baitio.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioz, udal-teknikariek egindako proiektuak hiru leku jakinetan aldatzen du Gasteizko HAPO (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, Pedro Asua eta Salbatierrabide); horietan, garraio eta komunikazioko sistema orokorretik kanpoko jabegoak inbaditzen ditu Autobus Elektriko Adimentsurako aurreikusitako ibilbideak, geltokiko bertako eta inguruneko irisgarritasuna bermatzeko. Horretarako, garraio eta komunikazioko sistema orokorrean sartu dira azalera horiek; gaur egun pribatuak dira, eta ekipamenduaren kalifikazio xehatua dute.

Gasteizko HAPOren aldaketa honi dagokion projektuan honako hauek jaso dira: lan taldea, proposamenaren deskribapena, aldaketaren justifikazioa eta beharra, hirigintza estandarrak betetzeari buruzko justifikazioa, aldaketaren izaera eta eremua, bideragarritasun ekonomiko finantzarioaren azterlana, iraunkortasun ekonomikoari buruzko txostena eta herritarren partaidetzarako programa.

Aplikatzekoak diren legezko araei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxieneko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza-planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza-plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, horretaz gain, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Tokiko Gobernu Batzarra da Gasteizko HAPO aldatzeko organo eskuduna; izan ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua— 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hirigintza-antolamenduko tresnen proiektuak onestea, horien behin betiko zein behin-behineko onespena Udaltzari dagozkionean.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.c) artikulua (Tokiko Gobernu Eraberritzeko neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua) xedatutakoaren arabera. Udaltzari dagokio planeamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako tresnen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onespena ere.

Goian aipatutako arauak kontuan hartuta, honako tramitazio hau izan du dosierak:

– Zinegotzi ordezkararen 2018ko apirilaren 11ko formulazio dekretuaren bidez, udal-zerbitzu teknikoei enkargu eman zitzaion Gasteizko HAPOren egiturazko aldaketa puntual baten proposamen bat presta zezaten, garraio eta komunikazioko sistema orokorrean Autobus Elektriko Adimentsuaren (BEA) nasak eta alboetako espaloiak edonorentzat irisgarri izan daitezkeen behar den zoru-zerrenda gehitzeko.

– 2018ko apirilaren 20an, Gasteizko udalaren webgunean argitaratu ziren planaren aldaketaren aurrekariak, ekimenarekin konpondu nahi ziren arazoak, onestearen beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta izan daitezkeen konponbide alternatiboak, arautzaileak eta ez arautzaileak.

– Kontsulta publikoko prozesuan, bi ekarpen jaso ziren, eta udal-zerbitzu teknikoek horien inguruko txostenak egin zituzten.

– Plangintzarako Aholku Kontseiluak, 2018ko ekainaren 18an, proposatutako aldaketa aztertu eta aldeko txostena eman zuen.

– 2019ko otsailaren 8an, Sustapen Ministerioaren aldeko txostena jaso zen.

– 2019ko apirilaren 17an, Gasteizko udaltzariak hasierako onespena eman zion HAPO aldatzeko proposamenari.

– 2019ko maiatzaren 13an ALHAOn eta 2019ko maiatzaren 16an lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratu zen hasierako onespena, eta hilabeteko epea eman zen alegazioak aurkezteko. Emandako epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

– 2019ko ekainaren 7an aldaketari buruzko informazio-saioa egin zen, eta bertan, planeamendu aldaketaren nondik norakoak eta alegazioak egiteko aukerak eta modua azaldu zituzten udal teknikariek.

– Udaltzaren Idazkaritza Nagusiak zuzenbideari egokitzearen eta dosierari behin-behineko onspena emateko arauzko prozeduraren aldeko txostena egin zuen 2019ko urriaren 10ean.

– 2019ko urriaren 18an Udaltzariak behin-behineko onspena eman zion planeamendu aldaketari.

– Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Batzarraren Arabako Hirigintza Planeamendurako Atala proposatutako aldaketaren alde agertu zen 2019ko abenduaren 18an egindako bilkuran (7/2019).

Aipatutako guztia kontuan harturik, eta behin betiko onetsi nahi den agiriak ez duenez behin-behineko onspena jaso zuen agiriarekin alderik, udal-zerbitzu teknikoek Gasteizko HAPOn aipatutako egiturazko aldaketa egitearen alde agertu dira 2020ko urtarrilaren 7ko txostenean, zein garraio eta komunikazioko sistema orokorrean Autobus Elektriko Adimentsuaren (BEA) nasak eta alboetako espaloiak edonorentzat irisgarri izan daitezkeen behar den zoru-zerrenda gehitzeari buruzkoa baita.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeak abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak osatua 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onespena ematea Gasteizko HAPOn egiturazko aldaketa puntualari, garraino- eta komunikazio-sistema orokorrean autobus elektriko adimentsuaren (BEA) nasak eta alboetako espaloiak edonorentzat irisgarri izan daitezen behar den zoru-zerrenda gehitzeari dagokionean.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 24an

*Alkate-lehendakaria*

**GORKA URTARAN AGIRRE**

Aldatutako plangintza

**Departamento de Urbanismo**  
**Higintza Saria**

**Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz**  
**Vitoria-Gasteizko Udala**

**MODIFICACIÓN ESTRUCTURAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA PARA INCLUIR EN EL SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES Y TRANSPORTES LA FRANJA NECESARIA PARA DOTAR DE ACCESIBILIDAD A LOS ANDENES Y A LAS ACERAS CONTIGUAS DEL BUS ELÉCTRICO INTELIGENTE (BEI)**


HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORAREN EGITURAZKO ALDAKETA

GARRAIO ETA KOMUNIKAZIONGO SISTEMA OROKORREAN AUTOBUS ELÉKTRIKO ADIMENTSUAREN (BEI) NASAK ETA ALBOETAKO ESPALIOIAK EDONGORENTZAT IRISGARRI IZAN DAITEZEN BEHARREZKO ZERRENDA GEHITZEKO

PLANO/PLANUA	PLANEAMIENTO PROPUESTO PLANGINTZA PROPOSAMENA	
5	CALIFICACIÓN GLOBAL KALIFIKAZIO OROKORRA	
FECHA/DATA	INGENIERO DE CARROS/IDIE INGENIARIA	
JULIO UZTAILA	1:2.000	ALFREDO PIRIS PINILLA

**CALIFICACIÓN GLOBAL / KALIFIKAZIO OROKORRA**

- EQUIPAMIENTO COMUNITARIO
- GIZARTE EKIPIAMENDUA
- RESIDENCIAL
- ETXEBITZETOKO
- ESPACIOS LIBRES
- TOKI IRENIAK
- RED VIARIA
- BIDEAK
- ÁMBITOS DE ORDENACIÓN Y GESTIÓN
- ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA ESPARRIAK



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala



Departamento de Urbanismo  
Higintza Sala

MODIFICACIÓN ESTRUCTURAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA  
PARA INCLUIR EN EL SISTEMA GENERAL DE COMUNICACIONES Y TRANSPORTES LA FRANJA NECESARIA PARA DOTAR  
DE ACCESIBILIDAD A LOS ANDENES Y A LAS ACERAS CONTIGUAS DEL BUS ELÉCTRICO INTELIGENTE (BEI)

HBI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORAREN EGITURAZKO ALDAKETA  
GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOKO SISTEMA OROKORREAN, AUTOBUS ELEKTRIKO ADIRINTSUA (BEI) NASAK  
ETA ALBRETAKO ESPALLOIAK EDONKONTZAT IRISGARRI IZAN DAITEZEN BEHARRERAZKO ZERRENDIA GEHITZEKO

PLANO/FOLIOA	PLANEAMIENTO PROPUESTO PLANEANTZA PROPOSAMENA		
6	ALINEACIONES Y CALIFICACIÓN FORMORIZADA LERROKADURAK ETA KALIFIKAZIO XEHEA		
FECHA/DATA	ESKALA/ESKALA	INGENIERO DE CANTONOS/DE INGENIARIA	
JULIO UZTAILA	1:2.000	ALFREDO FIRIS PINILLA	

- EQUIPAMIENTO COMUNITARIO  
GIZARTE EKIPAMENDUA
- EQ-G GENÉRICO
  - EQ-S ZERHAZTU GABEA
  - EQ-E SANITARIO-ASISTENCIAL
  - EQ-LI OSASUNERAKOA
- COMUNICACIONES Y TRANSPORTE  
GARRAIBIDEAK
- CO-U RED VIARIA
  - EQ-G KALEAK ETA BIDEAK
- ÁMBITOS  
ESPARRUAK
- S-U ÁMBITO DE ORDENACIÓN Y GESTIÓN  
ANTOLAMENDU ETA KUDEAKETA ESPARRUA

